



**INDARKERIA MATXISTAREN
BIKTIMA DIREN NESKA, NERABE
ETA EMAKUMEEI LAGUNTZEKO
IKASTETXEETARAKO
JARRAIBIDEAK**

Lan honen bibliografia-erregistro bat Eusko Jaurlaritzaren Liburutegi Nagusiaren katalogoan kontsulta daiteke:
https://www.katalogoak.euskadi.eus/cgi-in_q81a/abnetclop?SUBC=VEJ/J0001

Argitaraldia

2.a, 2024ko apirila

@ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Hezkuntza Saila

Internet

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritzaren-liburutegia-artxiboa-argitalpenak/argitalpen-zerbitzu-nagusia/>

Argitaratzailea

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco C/Donostia-San Sebastian, 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ

Aurkibidea

1.	Sarrera	5
	1.1. Zeri dagozkio jarraibide hauek	7
	1.2. Esparru juridikoa eta arau-esparrua	8
	1.3. Jarraibide hauen aplikazio-eremua	9
2.	Jarduketa-printzipio orokorrak	11
3.	Jarduketa- eta detekzio-jarraibideak, indarkeria matxista eragiten duen agentearen arabera	15
	a. Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea emakumezko ikasle bat indarkeria matxistaren biktima dela, ikastetxe bereko gizonezko ikasle baten eskutik	17
	b. Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea emakumezko ikasle bat indarkeria matxistaren biktima dela, ikastetxeko gizonezko langile baten eskutik	20
	c. Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea emakumezko ikasle bat indarkeria matxistaren biktima dela, familiako gizon baten edo ikastetxean lan egiten ez duen beste gizon baten eskutik	21
	d. Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea ikastetxeko emakumezko langile bat edo ikastetxeko ikasle baten ama etxeko indarkeria matxistaren biktima dela	22
4.	Eranskinak	25
	1. Eranskina. Protokoloa abiaraztea	27
	2. Eranskina. Esku hartzeko plana	29
	3. Eranskina. Eskola-jazarpeneko protokoloa	32
	4. Eranskina. Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren motak	47
	5. Eranskina. Ikastetxean kontuan hartu beharreko alderdiak. Indarkeria matxistaren emakumezko biktima baten aurrean jarduteko gomendioak	49
	6. Eranskina. Infografia	50

1



Sarrera

1.1. Zeri dagozkio jarraibide hauek

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak¹ (hemendik aurrera, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea), honako hau xedatzen du 66. artikuluan:

«1.- Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bitartez, gai honetan eskumenak dituzten gainerako EAEko administrazio publikoekin erakundearteko lankidetzak-akordioak eguneratzea sustatuko du; izan ere, horrela ahalbidetuko da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuak goiz detektatzea, horrelako kasuetan koordinatuta eta eraginkor jardutea, eta biktimei laguntza integrala eta kalitatekoa bermatzea. Gai horretan eskumenak dituzten gainerako erakundeekin ere lankidetzak-bideak sustatu behar dira.

2.- Lankidetzak-akordio horietan, jarduketa-irizpideak edo -protokoloak finkatuko dira, Erkidego osorako homogeenak, horrelako kasuetan diharduten profesionalentzat. Akordioetan, mekanismo batzuk ere ezarriko dira, aldeek hartutako konpromisoak nola betetzen ari diren aztertzeko eta ebaluatzeko, barne direla erakundeek horrelako kasuetan ematen duten erantzuna hobetzeko planteatzen diren kexa eta iradokizunak bideratu eta horiei erantzun egokia emateko bideak».

Horri erantzuna emateko, EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioa onartu zen.

Akordio horretan, honako hau jasotzen da:

«Bigarrena: erakunde sinatzaileek adostu dute «emakumeen aurkako indarkeria matxista» terminologia erabiltzea, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko) sartutako izendapenarekiko koherentea izan dadin.

Hirugarrena: Erakunde sinatzaileek konpromisoa hartzen dute beren jarduteko modua egokitzeko emakumeen aurkako indarkeria matxistako egoeren aurrean, akordio honi erantsi zaion Jarduketa Koordinatuko Protokoloan zehazten diren printzipio gidari eta jarraibideak beteta; hori guztia dagozkien eskumenen gehieneko errespetuarekin».

Beste alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzak Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023) planaren bidez², aukera ematen du hezkidetzak-eskolan aurrerapausoak ematen jarraitzeko Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapetan.

Plan horren barruan gauzatzeko ekintza guztiak antolatuta daude; hauek, besteak beste:

«40. Ikastetxeei zuzendutako detekzio- eta jarduketa-jarraibideak egitea eta zabaltzea, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko indarreko Erakunde arteko Akordioaren esparrua beteta.»

Azkenik, adierazi behar da jarraibide horiek EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioaren hezkuntzaren esparruko jarduketa- eta koordinazio-jarraibide orokorrei buruzko 2.5.5 apartatuan oinarritzen direla.

1 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.

2 EAEko hezkuntza-sistamarako II. Hezkidetzak Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023), 2019, Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila.

1.2. Esparru juridikoa eta arau-esparrua

Hezkuntza emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politiketan gehien araututako arloetako bat da. Hainbat araudik, gomendiok, planek eta abarrek sustatzen dute hezkuntza-sistemaren arloko lan aktiboa, hezkidetzan oinarritutako hezkuntza-eredu bat lortzeko xedez.

Nazioarteko esparruan, Nazio Batuen Erakundeak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onetsi zuen. Plan unibertsal bat da, munduko herrialde guztiei eragiten diena. 15 urteko epean (2015-2030) garatzeko Garapen Jasangarriaren 17 Helburu jasotzen ditu. 2030 Agenda aurrerapauso handia da genero-ikuspegiari dagokionez. Hain zuzen ere, alde batetik, helburu espezifikoko gisa jasotzen du «genero-berdintasuna lortzea eta emakume nahiz neska guztiak ahalduntzea»; eta, bestetik, estrategikotzat jotzen ditu genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.

Horrez gain, Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta borrokatzeko (2011ko maiatzaren 11, Istanbul), 2014an berretsi zuen Espainiak. Hitzarmen hori Europako lehen tresna juridiko loteslea da emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan, baita giza eskubideen urraketa larri horren aurrean irismen handiena duen nazioarteko tratatua ere.

Halaber, 1/2023 Legegintzako Dekretuak, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legea onartzen duenak, honako hau jasotzen du 32.2 artikuluan:

Era berean, Hezkuntza Administrazioak oinarritzko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza-maila guztietan indarkeriazko jokaerak prebenitzea, adingabeekiko sexu-abusuak barne, eta eguneroko bizitzarako irakasgai edo eduki eta aldi zehatzak ezarriko

ditu hezkuntza-maila guztietan. Eduki eta aldi horietan gai hauekin lotutako alderdi eta edukiak sartuko dira: etxeko eremua eta pertsonen zaintza, harreman pertsonalen funtzionamenduaren ezagutza eta harreman afektibo-sexual osasungarriak eta positiboak sustatzea, hizkuntzaren erabilera ez-sexista, emakumeen gorputza erakartzeko elementu edo aberastasun-iturri gisa erabiltzea zalantzan jartzea, jarrera matxisten identifikazioa eta prebentzioa, agerikoenak ez direnak barne, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta sexuen berdintasunaren eta dibertsitatearen errespetuan oinarritutako bizikidetzak-ereduak ikastea.

Honako hauek dira adierazitakoa jasotzen duten askotariko legeak eta dekretuak³:

- 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurka osoko babesa emateko neurriei buruzkoa.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakume eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa.
- 3/2020 Lege Organikoa, abenduaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duena.
- 17/2023 LEGEA, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.
- 2/2024 LEGEA, otsailaren 15ekoa, Haur eta Nerabeena.
- 201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa.
- 77/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko.
- 76/2023 DEKRETUA, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko.

3 ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana, 2019. Emakunde.

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2030 Estrategia.
- EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arreta koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioa (2023).

1.3. Jarraibide hauen aplikazio-eremua

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 54. artikuluan:

1. Emakumeen aurkako indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, gizarte-arazo eta osasun publikoko arazo handi bat, botere-harreman ez-parekoen eta emakumeen kontrako diskriminazioaren erakusgarri argia, eta, horretaz gainera, generoaren arabera dauden desberdinkeria-egoera estrukturalak betikotzeko funtzio soziala du. Emakume izateagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen du, neska txikien, neska nerabeen eta emakume transexualen kontra egiten dena barne, edo neurritz kanpo eragiten dien indarkeria, bai eremu publikoan, bai pribatuan. Indarkeria egitezkoa zein ez-egitezkoa izan daiteke, eta bitartekoak izan daitezke fisikoak, psikologikoak edo ekonomikoak, mehatxuak, larderia eta hertsapena barne, baldin eta haien ondorioa min, sufrimendu edo kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa, soziala, sozioekonomikoa edo ondarearekin lotutakoa bada.
2. Emakumeen kontrako indarkeria matxista dira bikotekidearen edo bikotekide ohiaren kontrako indarkeria, familia-indarkeria, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neska txikien salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak eta beste jardun tradizional kaltegarri

batzuk, hertsapena edo askatasun-gabetze arbitrarioa, tortura, indarkeria instituzionala, jazarpena, genero-indarkeria politikoa, indarkeria digitala eta sare sozialetakoa, obstetrikoa, sexu-eta ugalketa-eskubideak urratzea, eta emakumeen edo neska txikien duintasuna, segurtasuna edo askatasuna urratzen duen edo urra dezakeen beste edozein indarkeria mota, baldin eta nazioarteko tratatuetan, Espainiako Zigor Kodean edo Estatuko edo Autonomia Erkidegoko araudietan jasota badago. Hori guztia, kontuan izan gabe alor publikoan, eremu pribatuan gertatzen den; horren barnean sartzen dira, besteak beste, eremu hauek: familia, lana, hezkuntza, osasuna, kirola, komunitatea, komunikabideak, aisialdi-eta jai-espazioak eta eremu birtuala.

3. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria matxistatzat jotzen da biktimak babesten dituzten pertsonen aurka egiten den indarkeria, bai eta haien hurbileko ingurunearen edo ingurune afektiboaren aurka egiten dena ere, bereziki seme-alaben edo beste senide batzuen aurkakoa, emakumea atsekabetzeko borondatez.

Halaber, ekainaren 4ko 8/2021 Legeak, Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoak, helburu du haurrek eta nerabeek beren osotasun fisiko, psikiko, psikologiko eta moralerako dituzten oinarritzko eskubideak edozein indarkeria motaren aurrean bermatzea. Horretarako, haurrek eta nerabeek beren nortasuna askatasunez garatu ahal izatea ziurtatuko du, eta babes integraleko neurriak ezarriko ditu, barnean hartuta sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzio goiztiarra, babesa eta kaltearen erreparazioa, haien bizitza garatzen den eremu guztietan.

Agiriaren VI. ERANSKINEAN emakumeen aurkako indarkeria matxistaren motak deskribatzen dira⁴.

Indarkeria ERAGITEN DUEN AGENTEAREN arabera, eskolan honako indarkeria matxistako egoera hauek hauteman daitezke:

- Emakumezko ikasle bat indarkeria matxistaren biktima da ikastetxe bereko gizezko ikasle baten eskutik.
- Emakumezko ikasle bat indarkeria matxistaren biktima da ikastetxeko langile baten⁵ eskutik.

- Emakumezko ikasle batek indarkeria matxista jasaten du familiako gizon baten edo ikastetxean lan egiten ez duen beste gizon baten eskutik.
- Ikastetxeko emakumezko langile bat edo ikasle baten ama etxeko indarkeria matxistaren biktima da⁶.



4 Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak, EAE, 2019. Emakunde.

5 Kolektibo horrek barne hartzen ditu ikastetxeko adingabeekin eskuarki harremana duten ikastetxeko langile eta irakasle guztiak (begiraleak, jantokiko begirale edo zaindaria, entrenatzaileak, etab.), harremana eskola-ordutegi barrukoa zein kanpokoa delarik, beren eginkizunak edo lanbidea eskola-esparruan edo instalazioen barruan gauzatzen ari direla.

6 Legearen arabera, ama indarkeria matxistaren biktima denean, haren seme-alabak ere biktima zuzenak dira (8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa. 29.2 artikulua).



Jarduketa-printzipio orokorrak

Jarraibide hauek egiterakoan hiru ardatz hartu dira kontuan: giza eskubideak, genero-berdintasuna, eta haur eta nerabeen babesak.

Agiri honetan jasotako jarraibideak betetzeko, inplikaturako profesionalek eta erakundeek honako printzipio hauek hartu beharko dituzte kontuan:

- Adingabekoen interesak defendatzea. Jarduketa-jarraibideak aplikatzeko orduan, adingabeei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, adingabeen eskubideak, ongizatea eta erabateko garapena bermatzeko. Haurren eta nerabeen interes gorenak aintzat hartuko da beti.
- Interseksionalitatea. Emakumeen aurkako indarkeria matxista emakume guztiei eragin diezaieken errealitatea da. Hala ere, indarkeriaren aurrean duten egoera ezberdina da hainbat faktoreren arabera: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak eta bestelako iritziak, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaiotza, desgaitasuna, adina, sexu-orientazioa, familiaren osaera edo emakumeek beren eskubideak eraginkortasunez erabiltzeari begira desberdinkeria edo diskriminazioa eragiten duen beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial. Faktore horietako batzuk elkartzen direnean, emakumeek diskriminazio-esperientzia konplexu eta berdingabeak bizitzen dituzte. Gainera, ikuspegi interseksionalak esan nahi du kontuan hartu behar dela sexua nola erlazionatzen eta interakzionatzen den gainerako faktoreekin hainbat mailatan eta, askotan, aldi berean, eta nola sortzen diren identitate gainjarriak eta interseksionatuak, bai eta egoera eta botere-ardatz eta zapalkuntza desberdinak eta elkarrekin erlazionatuak ere. Benetan ondo eta osotasunean ulertzeko, faktoreak eta zapalkuntzak elkartzen direnean, horiek multzo oso gisa azertu behar dira, aldi berean eta fusionatuta, eta ez kategoriatan bereizi eta independente gisa.
- Konfidentzialtasuna. Konfidentzialtasun-printzipioaren babespean egongo dira indarkeria matxistari buruz aurkezten diren kontsulta edo kexa guztiak, tartean dauden pertsonak eta jarraibide hauek aplikatzeko era batera zein bestera esku hartzen duten langileak. Indarkeriak pairatu dituzten pertsonen anonimotasuna gordeko da.
- Babesa eta segurtasuna. Ikastetxeek beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte indarkeria-egoera baten berri ematen duten haur, nerabe eta emakumeen babesak eta segurtasuna bermatzeko.
- Ahalduntzea eta normalizazioa. Kasu bakoitzerako neurri egokiak hartzeko orduan, indarkeriaren biktimek autonomia eta bizimodu normalizatua izan dezatela lortzeko ahalegina egingo da.
- Eraginkortasuna eta arintasuna. Agiri honetan jasotako jarraibideak aplikatzeko, antolaketa eraginkorra eta arina bermatu beharko da, horrelako egoeretan ohikoa izaten den urduriak hala eskatzen baitu, berehalakotasunez jokatzeko.
- Prebentzioa. Jasotako jarraibide-multzoa aplikatuko da biktimei aurkako indarkeria-egoerak errepikatu ez daitezkeen. Eta horrez gain, ikastetxeetan hezkidetzak sustatuko da, prebentzio xedeetarako.
- Erabateko babes pertsonalizatua. Agiri honetan adierazitako indarkeriaren biktimei eta horien menpekoak diren pertsonen ematen zaien arretak indarkeria-egoera bakoitzetik sortzen diren premiak barne hartuko ditu: eta, horretarako, kasu bakoitzaren inguruabar pertsonalen eta sozialen arabera, egokienak diren zerbitzuak eta prestazioak eskainiko zaizkie.

- Ikasleek indarkeria matxistari aurre egiteko jarduketa-jarraibideen berri izango dute⁷. Ikastetxe guztiek emango diete haur eta nerabeei, hezkuntza-etapa bakoitzari egokitutako formatuan eta hizkuntzan, administrazio publikoek araututako eta ikastetxean aplikatutako indarkeria-egoeren berri emateko prozedurei buruzko informazio guztia, bai eta arlo horretako arduradunei buruzkoa ere. Halaber, hasiera-hasieratik emango dute baliabide elektronikoei buruzko informazioa, bai eta haurrei eta nerabeei arreta emateko telefono-lineei buruzkoa ere.
- Biktima diren haur eta nerabeen bigarren mailako biktimizazioa prebenitzea. Ikastetxeetako profesionalek indarkeria matxistaren kasu baten aurrean nola jokatu behar duten jakin behar dute. Ezinbesteko gutxieneko esku-hartzea egin behar dute, bigarren mailako biktimizazioa saihestuz; hau da, profesionalek eta erakundeek egiten ditugun jarduketan ondorioz haur edo nerabeari sufrimendu erantsia eragin gabe.
- Hezkuntza-tratamendua eta kalteak erreparatzeko lanak. Hezkuntza-arloan neurriak eta bitartekoak jarri behar dira indarkeriazko egintzak ekiditeko eta prebentzio-faktoreak eta faktore positiboak sustatzeko; halaber, heziketa-neurriak proposatu eta landu behar dira kaltetutako harremanak birsortzeko eta biktimei erabateko laguntza eman eta eragindako kalteak erreparatzeko.
- Koordinazioa. Lan koordinatua eta kolaboratiboa egiten dela bermatzea, eta tartean dauden erakundeekiko lankidetzak sustatzea, babesgabetasuna, tratu txarrak eta/edo sexu-abusuak eta sexu-jazarpena detektatzeko eta egoera horiei aurre egiteko.
- Sentsibilizazioa eta prestakuntza. Esku-hartze egokia bermatzeko, beharrezkoa da prozeduran parte hartuko duten pertsonak berdintasunaren arloan sentsibilizatuta egotea eta indarkeria matxistaren biktimak artatzeko gutxieneko prestakuntza espezifiko izatea.
- Ez da bitartekaritarik egongo. Genero-indarkeriako egoera guztietan bitartekaritza debekatuta dago gatazkak konpontzeko neurri alternatibo gisa, 1/2004 Legearen 44.5 artikularekin bat etorritik.

OHARRA:

Biktimarekin jarduteko orduan, kontuan hartu behar dira **5. ERANSKINEAN** proposatzen diren gomendioak: zer egin eta zer ez egin.

⁷ 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa.



Jarduketa- eta
detekzio-jarraibideak,
indarkeria matxista
eragiten duen
agentearen arabera

Indarkeria matxista eragin duen agentearen aldagaia bereziki garrantzitsua da, eta esku-hartzean agentearen araberrako berezitasunak kontuan hartu beharko dira.

A. Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea emakumezko ikasle bat indarkeria matxistaren biktima dela, ikastetxe bereko gizona izateko ikasle baten eskutik

Kasu horretan, EAEko unibertsitateaz kanpoko Ikastetxeetan eskola-jazarpeneko egoeretan jarduteko protokoloan ezarritakoa aplikatuko da. Bereziki, ikastetxeko zuzendaritzak edo BAT taldeak edo xede horretarako berariaz sortutako taldeek honako urrats hauek jarraituko dituzte:

a. Ebidentziak baldin badaude⁸:

- Eskera jasotzen duen edo egoeraren berri duen irakasleak ikastetxeko zuzendaritza-taldeari jakinaraziko dio. Zuzendaritzak BAT taldea deituko du, egoera aztertu eta dagozkion jarduketak abian jartzeko. 1. eranskina, protokoloa abiaraztea, beteko da.
- Ondoren, zuzendaritzak, kontakizuna jaso duen pertsonarekin batera, jazarpen-protokoloa abiaraziko du. Horretarako, O ERANSKINA (ikus dokumentu honetako 3. eranskina) beteko du jasotako informazioarekin. Eranskina bete ondoren, erreferentziatzeko ikuskariari eta Berritzegune Nagusiko bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketako arduradunari bidaliko zaie.
- Egoera horren aurrean, ikastetxeko zuzendaritza Ertzaintzaren Komisariako bideratzailearekin harremanetan jarriko da, egoeraren berri emateko eta ikastetxera joateko eskatzeko.
- Babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-fitxa bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie, balizko babesgabetasun-egoeretan hezkuntza-eremuan egin beharreko prebentzio- eta jarduera-protokoloari dagokiona.
- Emakumeen Etxerik baldin badago, biktima animatu daiteke bertara jotzeko.

b. Susmoak baldin badaude⁹:

1. Zuzendaritzak, BAT taldeak edo horretarako berariaz sortutako taldeak informazioa jasoko du: inplikaturako ikasleak, non gertatu den, noiz gertatu den, lehenengo aldia den edo aurretiaz ere gertatu den, nola bizi duen biktimak, nola sentitzen den erasotzailearen aurrean, nola bizi duen amak, aitak edo legezko tutoreak, zein den erasotzailearen egoera, egoera zabaldu den edo ez, etab. Egoera aztertu eta dagozkion jarduketak abian jartzeko. 1. eranskina, protokoloa abiaraztea, beteko da eta jasotako informazioarekin. Edonola ere, egin beharreko lehenengo gauza biktimarekin hitz egitea da. Jasotako informazioarekin O. ERANSKINA beteko da (ikus dokumentu honetako 3. eranskina), jazarpen-protokoloa abiarazteko. Eranskina bete ondoren, Ikuskaritzara eta Berritzegune Nagusiko bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketako arduradunari bidaliko zaie.

Babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-fitxa bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie, balizko babesgabetasun-egoeretan hezkuntza-eremuan egin beharreko prebentzio- eta jarduera-protokoloari dagokiona.

8 Ebidentziak daudela ulertzen da, agiri honen ondorioetarako, adierazle erabat espezifikoak daudenean: adierazle fisikoak, haurrek edo nerabeek kontatu egiten dutenean edo haurren sexu-esplotazioko formaren baten frogak daudenean (Arartekoa. Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraitbideak. 2021).

9 Susmoak daudela ulertzen da, agiri hauen ondorioetarako, haur edo nerabearengan jokabide adierazleak daudenean, profesionalek edo familiak antzemandakoak, edo hirugarren pertsonen erreferentziaren testigantzak daudenean, baina ez badago adierazle fisikorik, haurrak edo nerabeak ez duenean ezer kontatu eta haurren sexu-esplotazioaren formen frogarik ez dagoenean (Arartekoa. Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusua eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean jarduteko jarraitbideak. 2021).

2. Kasuaren aurretiazko azterketa eta urgentziazko esku-hartzeak. Zuzendaritzak, BAT taldeak edo horretarako berariaz sortutako taldeak jasotako informazioa aztertu ondoren, erasoak jasan duen biktimaren segurtasuna berehala bermatzeko neurriak hartuko ditu. Neurri horiek hartzerakoan, kontuan hartu beharko dira ikaslearen adina eta testuingurua. Honako hauek izan daitezke neurri horiek:

- Erreferentziazko pertsona heldu bat aukeratzea. Biktima harekin komunikatuko da. Biktimaren gertuko pertsona bat izango da, biktimak berak hautatutakoa. Biktima eta erreferentziazko pertsona beharrezkoa den guztietan komunikatuko dira, komunikazio-bide seguruen bitartez. Komunikazio-bideak formalak izan daitezke (mikrobilerak lanaldiaren hasieran, amaieran edo biktimak hala eskatzen duenean, idatzi laburrak, etab.), edo informalak (keinuak). Enpatiaren bidez, biktimari bere ondoan gaudela ikusarazi behar zaio, ez dugula bakarrik utziko.
- Biktimarekin harreman zuzena duten profesionalak (irakasleak, irakasleak ez diren langileak, jangelako langileak, beste zerbitzuetako profesionalak...) egoeraren berri ematea, edozein gorabeheraren aurrean koordinatuta jardun dezaten.
- Beharrezkoak diren egokitzapenak egitea. Zaintza-neurri sotilak eta erasotzailearengandik aldentzeko neurriak hartzea (biktima erasotzailearengandik aldentzeko neurriak dagokienez, neurriak erasotzaileari ezarriko zaizkio, biktimaren egunerokoa ahalik eta gutxien aldaraziz).
- Informazio gehiago behar izanez gero, behaketa-erregistroak jasotzea: data eta ordua, lekua, gertaera, berehalako larrialdineurria, behatzailearen sinadura, etab.
- Hala ere, egoeraren larritasunaren arabera, neurri zorrotzagoak hartu ahal izango dira egoera bideratzeko.

Aurreko guztia konfidentzialtasun-printzipioarekin bat landuko da.

3. Lehenengo jakinarazpena aitei eta legezko tutoreei (ez badira haiek izan egoeraren berri eman digutenak). Banakako elkarrizketa egiteko deituko zaie, alde batetik, biktimari eta haren aitei, aitei edo legezko tutoreei, eta bestetik, ikasle erasotzaileari eta haren aitei, aitei edo legezko tutoreei. Eskola-jazarpeneko egoerarako jarduketa-protokoloan prozedura beste bat bada ere, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuan hori da amekin, aitekin edo legezko tutoreekin harremanetan jartzeko momentua. Elkarrizketaren helburua izango da gertatutakoaren berri ematea eta informazioa biltzea. Horretarako, amek, aitek edo legezko tutoreek gertatutakoari buruz zer dakiten egiaztatu behar da. Halaber, hartu diren edo hartuko diren premiazko neurriak jakinaraziko dira, eta neurri horiei buruz duten iritzia eta/edo egin ditzaketan ekarpenak jasoko dira. Gertakariak delitu izan daitezkeela adierazteko arrastorik balego, salaketa jartzearen (biktima) edo jasotzearen (erasotzailea) aukera jakinaraziko litzateke. Gogorarazi behar da ikastetxeek erreferentziazko Ertzaintzaren Komisariako bideratzailearengana jo dezaketela, salaketa jarriko bada, horretarako prozedurari buruzko aholkularitza jasotzeko.

4. Informazioa osatzea eta aztertzea. Dagoen informazioa osatu egingo da egoki iritzitako galde-sorta, elkarrizketa edo bestelako prozeduren bidez. Horiek guztiak, ahalik eta diskrezio handienarekin egingo dira; esku-hartzea ahalik eta txikiena izango da, beharrezkoa dena besterik ez, eta bigarren mailako biktimizazioa saihestuko da. Jazarpen-protokoloaren IRAKASLE-TALDEAREN BILERAREN AKTA beteko da (gehienez ere 5 eskola-eguneko epean, egoeraren berri izan denetik).

- a. Jazarpenikez dagoela ondorioztatzen baldin bada, ikastetxeak ESKU HARTZEKO PLANA abiaraziko du [2. eranskina](#). Beharrezkotzat jotzen bada, Berritzegune Nagusiko bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketako arduradunari eta Hezkuntzako ikuskariari aholkua eska dakieke. Jarduketa Planean idatziz jasoko dira ikastetxeak hartu beharreko neurriak, hain zuzen, inplikaturako ikasleei, amei, aitei eta legezko tutoreei, gainerako ikasleei eta irakasleei dagozkien neurriak; eta, kasuaren larritasunaren arabera, gizarte-erakunde, osasun-erakunde edo erakunde judizial batzuei eginiko komunikazioa ere bai. Jarduketa Planean ezarritako neurrien berri emango zaie amei, aitei edo legezko tutoreei, kontuan izanik hainbat kasutan haien lankidetzaz ezinbestekoa dela.
 - b. Jazarpenera egon daitekeela ondorioztatzen baldin bada, ustez jazarpenera jasaten duen ikaslea babesten jarraitzeko neurriak hartu eta ebidentziak jasotzen jarraituko da. Eskola jazarpenaren protokoloa irekiko da, O ERANSKINA, IRAKASLE TALDEAREN BILERAREN AKTA, BILERAREN AKTA eta A TXOSTENA egingo dira, protokolo horretan ezarritako epeak errespetatuz.
 - c. Jazarpenik ez dagoela ondorioztatzen baldin bada. A TXOSTENAREN arabera ez bada jazarpenik egon, BAT taldeak proposatuko du kasuari eman behar zaion hezkuntza-erantzuna, betiere bizikidetzaz positibo bultzatzeraz bideratuta. Horretarako, Berritzegune Nagusiko bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketako taldearen laguntza jasoko du. Hezkuntza-alderdietan plangintza, ordu-dedikazioa, edukiak eta abar aipatuko dira, besteak beste: tutoretza kolektiboa, banakako tutoretza, gatazkak indarkeriarik gabeko metodoen bidez konpontzea, gelako arauak lantzea, etab. Erreferentziazko ikuskariarekin harremanetan, zuzendariak erabakiko du jokabideak zuzentzeko prozedura ireki ala ez, kontuan hartuta prozeduraren ondoriozko preskripzioak eta horien aplikazioak kasu guztietan duen asmo hezitzailea. Zeregin horretan, erreferentziazko ikuskariaren aholkularitza izango du.
 - d. Jazarpenera dagoela ondorioztatzen baldin bada, B TXOSTENA bete beharko da, gehienez ere 22 eskola-eguneko epean. Ikastetxeak indarkeria matxista jasan duten emakumezko ikaslearekin edo ikasleekin abian jarriko dituen neurrien helburua beti izango da laguntza ematea jokabide horiek berriz gerta ez daitezen eta eragindako kalteak errepara daitezen. Atal honetan, eskola-jazarpeneko kasuetan aplikatzen den IRAKASLE TALDEAREN BILERAREN AKTAREN 4. puntuan (hartutako erabakiak) adierazitakoak jaso daitezke, eta beste batzuk gehitu, beharrezkotzat jotzen bada. Erreferentziazko ikuskariarekin harremanetan, zuzendariak erabakiko du jokabideak zuzentzeko prozedura ireki ala ez, kontuan hartuta prozeduraren ondoriozko preskripzioak eta horien aplikazioak kasu guztietan duen asmo hezitzailea. Zeregin horretan, erreferentziazko ikuskariaren aholkularitza izango du.
5. Hartutako neurrien jarraipena eta ebaluazioa. Ikastetxeko zuzendaritzak, BAT taldeak edo horretarako berariaz sortutako taldeak hartuko du Jarduketa Planean aurreikusitako neurriak gauzatzaren ardura. Aldizka ikastetxearen erreferentziazko ikuskariari neurriak zenbateraino betetzen ari diren jakinaraziko dio eta inplikaturako ikasleen gizarte-heziketako egoeraren nondik norakoak ere jakinaraziko dizkio.
- Edonola ere, gogoan izan behar da erasotzailea adingabea izan daitekeela, eta babes-neurriak, esku-hartze terapeutikoa eta jarraipena jasotzeko eskubidea duela.

B. Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea emakumezko ikasle bat indarkeria matxistaren biktima dela, ikastetxeko gizonetzko langile baten eskutik

1. Eskaera jasotzen duen edo egoeraren berri duen irakasleak ikastetxeko zuzendaritza-taldeari jakinaraziko dio. Zuzendaritzak BAT taldea deituko du, egoera aztertu eta dagozkion jarduketak abian jartzeko. **1. eranskina**, protokoloa abiaraztea, beteko da.
2. Ikaslearentzako eta amekiko, aitekiko eta legezko tutoreekiko harremanetarako erreferentziatzeko pertsona bat izendatuko da, hala badagokio. Esku hartzeko plan bat egingo da, **2. eranskina**. Komeni da ikasleak berak planaren prestakuntza parte hartzea. Horretarako, Berritzegune Nagusiko dagozkion aholkularitzen lankidetzak eskatu ahal izango da (Bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketa).
3. Zuzendaritza-taldeak berehala jakinaraziko dio Hezkuntzako ikuskariari, **1. eranskina** bidaltzearekin batera, eta aholkularitza eskatu ahal izango dio Berritzegune Nagusiko Bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketako taldeari.

Era berean:

a. Ebidentziak baldin badaude:

- Egoera horren aurrean, ikastetxeko zuzendaritza Ertzaintzaren Komisariako bideratzailearekin harremanetan jarriko da, egoeraren berri emateko eta ikastetxera joateko eskatzeko.
- Babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-fitxa bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie, balizko babesgabetasun-egoeretan hezkuntza-eremuan egin beharreko prebentzio- eta jarduera-protokoloari dagokiona.
- Emakumeen Etxerik baldin badago, biktima animatu daiteke bertara jotzeko.

- b. Susmoak baldin badaude: babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-fitxa bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie, balizko babesgabetasun-egoeretan hezkuntza-eremuan egin beharreko prebentzio- eta jarduera-protokoloari dagokiona.
4. Larrialdiko esku-hartzea. Akusatua ikastetxeko profesional bat den kasu zehatzetan, bereziki nabarmendu behar da oso garrantzitsua dela (gizarte-zerbitzuen ikerketa-prozesuak irauten duen bitartean, susmo kasuetan, edo prozesu judizialak irauten duen bitartean, ebidentzia eta salaketa kasuetan) haur edo nerabea zein gainerako ikasleak berehala babestea bermatuko duten zaintza- eta antolaketa-neurriak ezartzea: ez egotea inoiz bakarrik ikasgelan, berarekin batera guardiako beste irakasle bat egotea, jolastokiko zaintzetan eta jantokiko orduetan zaintza areagotzea, etab.
5. Adingabearen amei, aitei eta legezko tutoreei jakinaraztea. Egoeraren berri izan bezain pronto, ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango die adingabearen amei, aitei edo legezko tutoreei. Ikastetxeak kasu horri buruz esanguratsua izan daitekeen informazioa bilduko du, eta, betiere, prozesuan diskrezio osoz jardungo du.
6. Erreferentziatzeko pertsona heldu bat eskaintzea biktimari eta haren amei, aitei edo legezko tutoreei. Harekin komunikatuko dira biktima eta haren amak, aita edo legezko tutoreak. Biktimaren gertuko pertsona bat izango da, biktimak berak hautatutakoa. Biktima eta erreferentziatzeko pertsona beharrezkoa den guztietan komunikatuko dira, komunikazio-bide seguruen bitartez. Komunikazio-bideak formalak izan daitezke (mikrobilerak lanaldiaren hasieran, amaieran edo ikasleak hala eskatzen duenean, idatzi laburrak, etab.), edo informalak (keinuak).

Enpatiaren bidez, biktimari eta haren amei, aitei edo legezko tutoreei haien ondoan gaudela ikusarazi behar zaie, ez ditugula bakarrik utziko. Erreferentziazko pertsona horrek eta zuzendaritza-taldeak diskrezio osoz jardungo dute prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie, behar-beharrezkoak direnei bakarrik.

7. Prozedura judiziala abiarazten den kasuak. Lurralde-ordezkaritzak, kautelazko neurri gisa, ustezko errudunari behin-behineko eginkizun-gabetzea aplikatzea erabaki ahal du; kasu horretan, abiarazitako diziplina-prozedura eten egingo litzateke

harik eta abiatutako prozesu judiziala bukatu arte. Epaitegiek eta Fiskaltzak lurralde-ordezkaritzari jakinaraziko dizkiote artxibatzea edo zigortzea ekarriko duten ebazpenak, administrazioko zehapen-espeditentea artxibatu edo horrekin jarraitzeko ondoretarako. Eginbideak irekitzen ez badira edo kasu artxibatzen eta largesten bada, berdin-berdin hartuko dira ikastetxean segurtasun-neurriak, besteak beste: eraginpean dauden pertsonen egoeraren prebentziozko segimendua eta segimendu horren ondorioen aldizkako erregistroa, harik eta beharrezkotzat jotzen ez diren arte.

C. Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea emakumezko ikasle bat indarkeria matxistaren biktima dela, familiako gizon baten edo ikastetxean lan egiten ez duen beste gizon baten eskutik

1. Eskaera jasotzen duen edo egoeraren berri duen irakasleak ikastetxeko zuzendaritza-taldeari jakinaraziko dio. Zuzendaritzak BAT taldea deituko du, egoera aztertu eta dagozkion jarduketak abian jartzeko. [1. eranskina](#), protokoloa abiaraztea, beteko da.
2. Ikaslearentzako eta amekiko, aitekiko eta legezko tutoreekiko harremanetarako erreferentziazko pertsona bat izendatuko da, hala badagokio. Esku hartzeko plan bat egingo da, [2. eranskina](#). Komeni da ikasleak berak planaren prestakuntzan parte hartzea. Horretarako, Berritzegune Nagusiko dagozkion aholkularitzen lankidetzak eskatu ahal izango da (Bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketa).
3. Zuzendaritza-taldeak berehala jakinaraziko dio Hezkuntzako ikuskariari, [1. eranskina](#) bidaltzearekin batera, eta aholkularitzak eskatu ahal izango dio Berritzegune Nagusiko Bizikidetzaren arloko berrikuntza eta aniztasunaren kudeaketako taldeari.

Era berean:

- a. Ebidentziak baldin badaude:
 - Egoera horren aurrean, ikastetxeko zuzendaritza Ertzaintzaren Komisariako bideratzailearekin harremanetan jarriko da, egoeraren berri emateko eta ikastetxera joateko eskatzeko.
 - Babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-fitxa bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie, balizko babesgabetasun-egoeretan hezkuntza-eremuan egin beharreko prebentzio- eta jarduera-protokoloari dagokiona.
 - Emakumeen Etxerik baldin badago, biktima animatu daiteke bertara jotzeko.



b. Susmoak baldin badaude: babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-fitxa bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie, balizko babesgabetasun-egoeretan hezkuntza-eremuan egin beharreko prebentzio- eta jarduera-protokoloari dagokiona.

4. Adingabearen amei, aitei eta legezko tutoreei jakinaraztea. Egoeraren arabera, modu batera edo bestera jokatuko da:

- Ustez indarkeria matxista eragin duen gizona ustez biktima den ikaslearen senidea edo familia-ingurukoa baldin bada:

- Aita bada: egoeraren berri izan bezain pronto, ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango die adingabearen amari edo legezko tutoreei.

- Aita ez den beste gizon bat bada: egoeraren berri izan bezain pronto, ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango die adingabearen amei, aitei edo legezko tutoreei.

- Ustez indarkeria matxista eragin duen gizonak ustez biktima den ikaslearekin loturarik ez badu: egoeraren berri izan

bezain pronto, ikastetxeko zuzendaritzak egiten dituen jarduketan berri emango die adingabearen amei, aitei edo legezko tutoreei.

5. Erreferentziazko pertsona heldu bat eskaintzea biktimari eta haren amei, aitei edo legezko tutoreei. Harekin komunikatuko dira biktima eta haren amak, aitak edo legezko tutoreak. Biktimaren gertuko pertsona bat izango da, biktimak berak hautatutakoa. Biktima eta erreferentziazko pertsona beharrezkoa den guztietan komunikatuko dira, komunikazio-bide seguruen bitartez. Komunikazio-bideak formalak izan daitezke (mikrobilerak lanaldiaren hasieran, amaieran edo ikasleak hala eskatzen duenean, idatzi laburrak, etab.), edo informalak (keinuak). Enpatiaren bidez, biktimari eta haren amei, aitei edo legezko tutoreari haien ondoan gaudela ikusarazi behar zaie, ez ditugula bakarrik utziko. Erreferentziazko pertsona horrek eta zuzendaritza-taldeak diskrezio osoz jardungo dute prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie, behar-beharrezkoak direnei bakarrik.

D. Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea ikastetxeko emakumezko langile bat edo ikastetxeko ikasle baten ama etxeko indarkeria matxistaren biktima dela¹⁰

Biktima ikastetxean seme-alabak dituen ama bat bada:

1. Eskaera jasotzen duen edo egoeraren berri duen irakasleak ikastetxeko zuzendaritzari jakinaraziko dio. Ikastetxeak babeska edota laguntza eskaini ahal izango dio biktimari, hau da, udalerrian edo eskualdean eskuragarri dauden baliabideen berri emango dio (programa espezifikokoak,

gizarte-zerbitzuak, emakumeen etxea, etab.), eta horietarako sarbidea erraztuko dio. Enpatiaren bidez, biktimari bere ondoan gaudela ikusarazi behar zaio, ez dugula bakarrik utziko. Eta laguntza-prozesuan diskrezioz eta konfidentziasunez jardungo dugu.

10 OHARRA

Aurreko A), B), C) eta D) apartatueta ezarritakoarekin bat, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren egoeren berri izaten denean, biktimei edo, hala badagokio, haren amei, aitei edo legezko tutoreei jakinaraziko zaie biktima gisa hezkuntza-esparruan zerbitzu eta prestazio jakin batzuk jasotzeko eskubidea dutela.

2. Arreta berezia eskainiko zaie ikastetxean dauden biktimaren seme-alabei¹¹.

- Zuzendaritza-taldeak tutoreei jakinaraziko die. Tutoreek zein zuzendaritza-taldeak diskrezio osoz jardungo dute prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie, behar-beharrezkoak direnei bakarrik.
- Tutoreak ikaslearen egoeraren jarraipen sakona egingo du, haren premiei (emozionalak, akademikoak, etab.) erantzun egokia eman ahal izateko.
- Beharrezkoa balitz, tutorea beste eragile batzuekin ere egongo litzateke harremanetan: laguntza-zerbitzuak, gizarte-zerbitzuak, osasun-zerbitzuak, etab.

8/2021 Lege Organikoaren arabera (Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa), ama indarkeria matxistaren biktima denean, haren seme-alabak ere biktima zuzenak dira, eta premiazkoa da horiei segurtasuna eta babes ematea, kalte gehiago jasan ez dezaten. Horiek horrela, C apartatuan ezarritakoari jarraitu beharko zaio, seme-alaben arretari dagokionez.

Amari tratu txarrak ematen dizkiona ikastetxeko ikaslea baldin bada:

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari egoeraren berri emango zaio. Eta zuzendaritza-taldeak berehala jakinaraziko dio Hezkuntzako ikuskariari. Era berean:

- a. Ebidentziak baldin badaude: Egoera horren aurrean, ikastetxeko zuzendaritza Ertzaintzaren Komisariako bideratzailearekin harremanetan jarriko da, egoeraren berri emateko eta ikastetxera joateko eskatzeko.

Gogoratu behar da ustezko arau-hauslea 14 urtetik beherakoa bada, ez zaiola prozedura judizial penala aplikatzen eta Fiskaltzak adingabeak babesteari dagokionez Kode Zibilean ezarritako arauak aplikatuko dituela.

- b. Susmoak baldin badaude: Babesgabetasun-egoeraren jakinarazpen-fitxa bete eta gizarte-zerbitzuei bidaliko zaie, balizko babesgabetasun-egoeretan hezkuntza-eremuan egin beharreko prebentzio- eta jarduera-protokoloari dagokiona.

- Zuzendaritza-taldeak tutoreari emango dio egoeraren berri, oraindik horren berri ez badu. Tutoreak zein zuzendaritza-taldeak diskrezio osoz jardungo dute prozesu osoan zehar. Egoera ahalik eta profesional gutxienei zabalduko zaie, behar-beharrezkoak direnei bakarrik.
- Banakako plan bat egingo da. Zuzendaritza-taldearen eta tutorearen artean erabakiko dute nor arduratuko den ikaslearen jarraipena egiteaz eta, denen artean, banakako plan bat egingo dute.
- Planaren jarraipena. Ikasle erasotzailearen premiei (emozionalak, akademikoak, etab.) erantzun ahal izateko, banakako plan horren jarraipenerako epeak eta tresnak ezarriko dira.
- Ikasleekiko esku-hartzea aitei, aitei edo legezko tutoreei azalduko zaio, eta haien laguntza ere eskatuko da.
- Familian beste seme-alabarik egongo balitz, horri ere arreta emango litzaioke.

Biktima ikastetxeko langile bat bada:

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari egoeraren berri emango zaio. Eta zuzendaritza-taldeak berehala jakinaraziko dio Hezkuntzako ikuskariari. Era berean:

Aintzat hartuko da eraso potentzial gehienak ikastetxeetan gertatuko diren arren, profesionalek beren eginkizunak gauzatzen dituzten bestelako lan-eremuetan edo lan-eremutik kanpo ere gerta daitezkeela. Azken kasu horretan ere aplikagarria izango da protokoloa, eraso langilearen jarduera profesionala dela-eta edo horri lotuta dagoela uste bada.

¹¹ Legearen arabera, ama indarkeria matxistaren biktima denean, haren seme-alabak ere biktima zuzenak dira (8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrei eta nerabeei indarkeriaren aurrean babes osoa emateari buruzkoa. 29.2 artikulua).

Era berean, lan-eremuan egindakotzat joko dira, nahiz eta aurreko apartatueta adierazitako lekuetatik kanpo gertatu, edozein gailu elektronikoren bidez gauzatzen diren jokabideak.

Jarduketa-prozesu osoan eraso jasandako profesionalaren oinarriko intimitate- eta konfidentzialtasun-printzipioak babestuko dira.

Eta, nolahi ere, agindu honetan ezarritakoari jarraituko zaio: [Agindua, 2011ko ekainaren 20koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, lanean jazarpen sexista edota morala gertatzen den kasuetan prebentzio-neurriak eta jarduteko prozedura arautzen dituen](#), [Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arloan](#).

Adierazi behar da agindu horretan bitartekaritza aurreikusten dela. «*Indarkeria matxistaren biktima diren neska, nerabe eta emakumeei laguntzeko ikastetxeetarako jarraibide*» hauetan, aldiz, ez da bitartekaritza onartuko. Edonola ere, bitartekaritza salbu, 2011ko ekainaren 20ko Aginduan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Biktima irakaslea ez den ikastetxeko langile publiko bat bada:

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeari egoeraren berri emango zaio. Eta zuzendaritza-taldeak berehala jakinaraziko dio Hezkuntzako ikuskariari. Era berean, agindu honetan jasotako jarraibideak aplikatuko dira: [Agindua, 2021eko uztailaren 9koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita zer prozeduraren arabera jardungo den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren eta haren organismo autonomoen eremuan sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuak gertatzen direnean](#).

Bertan adierazten da sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena sufritzen duten Administrazio Orokorreko edo organismo autonomoetako langileek edo administrazio honen eremuan mota horretako jazarpen-jokabideak detektatzen dituen edonork Aholkularitza Konfidentzialari eman ahal izango diola horren berri. Horretarako, Prebentzio Zerbitzuko Aholkularitza Konfidentzialarekin kontaktuan jarriko da:

AHOLKULARITZA KONFIDENTZIALA PREBENTZIO ZERBITZUA


Donosti-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz

prevencion@euskadi.eus

954 019 321 / 945 018 538

Hauek dira Aholkularitza Konfidentzialaren xedeak: administrazio honen eremuan egiten diren eta sexu-jazarpen edo sexuan oinarritutako jazarpen izan daitezkeen jokabideei buruzko komunikazioak jasotzea; ukitutako pertsonari orientazioa eta aholkularitza ematea, eta, hala badagokio, beharrezkoak diren babes-neurriak hartzea.

4



Eranskinak

1. ERANSKINA. PROTOKOLOA ABIARAZTEA

1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Lantokia	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2. Ikaslearen identifikazio-datuak

Izen-abizenen inizialak	
Generoa	
Adina	
Maila/Taldea	

3. Jakinarazitako egoera

(Adierazi nor jarri den harremanetan hasiera batean eta norekin egingo den agiri hau)

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4. Hartutako antolakuntza- eta segurtasun-neurriak

.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Zuzendaria: ...

Eskatzailea: ...

Sin.:

Sin.:

Eskatzaileak ez ditu akta honetan jasotako informazioak zabaldu behar, ezta bileran landutako gaiak ere (Maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren -Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa- 7. artikulua).

2. ERANSKINA. ESKU HARTZEKO PLANA

1. Ikaslearen identifikazio-datuak

Izen-abizenen inizialak	
Adina	
Maila/Taldea	

ESKU HARTZEKO PLANA

Ikaslearen egoera.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo hobeto sentiarazten duten egoerak eta zergatia.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Ikasgelan eta ikasgelatik kanpo gaizki sentiarazten duten egoerak.
Nola hobetu daitezke? Zer-nolako laguntzekin?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....


.....

.....

Hartu beharreko antolakuntza- eta segurtasun-neurriak (ikaslearekin adostutakoak).



Kontuan hartu behar diren beste alderdi batzuk.



3. ERANSKINA. ESKOLA-JAZARPENeko PROTOKOLOA (5 agirik osatzen dute)

EAE-KO UNIBERTSITATEZ KANPOKO IKASTETXEETAN ESKOLA JAZARPENeko EGOERETAN JARDUTEKO PROTOKOLOAREN ERANSKINAK:

0. eranskina: ESKU-HARTZE ESKARIARI BURUZKO AKTA

Familia	Eskariaren jatorria (X batekin adierazi)
Bestelakoak	

Adierazi eskariaren jatorria (irakasleak, irakasle ez diren langileak, pediatrak, etab.)

1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

2. Ustezko biktimaren identifikazio-datuak

Izen-abizenen inizialak	
Generoa	
Adina	
Maila/Taldea	

3. Azaldutako gertakariak

Ahalik eta zehaztasun handienaz transkribatuko dira eskaria egiten duen pertsonak adierazitako gertakariak. Ustez inplikaturik dauden ikasleak inizialen bidez identifikatuko dira.

.....

.....

.....
.....
.....
.....
.....
.....

4. Ustezko biktimaren segurtasuna bermatzeko zuzendaritzak hartuko dituen neurriak eta ebidentziak biltzeko prozesuari buruzko informazioa

.....
.....
.....
.....
.....

.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren(e)(a)n.

Ikastetxeko zuzendaria

Eskatzailea

Sin.:

Sin.:

Eskaria egiten duen pertsonak ez ditu zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

IRAKASLE-TALDEAREN BILERAREN AKTA

1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren izena eta abizenen inzialak	

2. Bilerara bertaratuak

Izen-abizenak	Kargua*	Izenpea

* Adierazi nor diren BAT taldeko kideak

3. Kasuari buruzko informazio garrantzitsua

Atal honetan, bilerara bertaratutako pertsonen emandako informazioa sartuko da. Nahitaezko konfidentziasuna bermatuko da aipatutako gaiei buruz, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

4. Hartutako erabakiak

Berariaz adieraziko dira ebidentziak biltzeko prozedurari buruz hartutako erabakiak, bai eta ustezko biktimari zuzendutako babes-neurri espezifikoak ere.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

..... (e)n, 20..... (e)ko (a)ren (e)(a)n.

Zuzendaria

Sin.:

AKTA-EREDUA

1. Bilerara bertaratuak

.....
.....

2. Bileraren helburuak

.....
.....

3. Erabakiak, ondorioak eta proposamenak

.....
.....
.....

..... (e)n, 20..... (e)ko (a)ren (e)(a)n.

Zuzendaria

Bertaratuak

Sin.:

Sin.:

Bileran egon diren pertsonak ez dituzte zabalduko akta honetan jasotako informazioak, ez eta bileran aztertutako gaiak ere (Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta bakoitzaren irudirako eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 171982 Lege Organikoaren 7. artikulua).

OHARRAK:

- Ustez inplikaturik dauden ikasleak inzialen bidez identifikatuko dira.
- Aurkeztutako datuen zein pertsonak ematen dituzten datuen konfidentziasuna mantentzeko, zuzendaritzak haien seme-alabei buruzko informazioa baino ez die emango familiei, eta inoiz ez inplikaturik gainerako ikasleei buruzkoa.

A TXOSTENA

1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	

3. Hasierako informazioa¹

Inplikaturako ikasleen identifikazio datuak.

a. Ustezko biktima:

	Ikaslea
Inizialak (izen-abizenak)	
Generoa	
Adina	
Maila eta taldea	

b. Salatutako jokabidearen ustezko eragileak:

	Ikasleak
Inizialak (izen-abizenak)	
Generoa	
Adina	
Maila eta taldea	

• Ustezko jazarpena gertatu den lekua.

.....

.....

• Lekukoak, halakorik bada (erabili inizialak).

.....

.....

¹ Nahitaezko konfidentzialtasuna bermatuko da izapideetan eta ikerketetan, eta kontuan hartuko da adingabeekin lotutako gai guztiak zuhurtasun osoz landu behar direla.

- Informazio osagarria.

	X batekin adierazi
Badago mediku-txostena Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Salaketa jarri da Polizian, epaitegietan edo Fiskaltzan Ikastetxeak ba al dauka txostenaren kopiarik?	
Arartekoari kexa aurkeztu diote Ikastetxeak ba al dauka kexaren kopiarik?	

1. Ikastetxeak lortutako informazioa

Ikastetxeak bildutako **datuak eta ebidentziak**, esku hartzeko eskaria oinarri hartuta.

Zehatz-mehatz eta objektiboki deskribatuko dira datuak eta ebidentziak, pertsona hauengandik eta metodo hauen bidez jasotakoak:

- **Ustezko biktima:** behaketak, elkarrizketak erreferentziazko pertsonarekin, banakako tutoretzak, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak, autotxostenak, autonarrazioak, etab.
- **Ikasgelako ikasleak:** heterotxostenak, banakako tutoretzak, postontzia, etab.
- **Lekukoak:** behaketak, banakako tutoretzak, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak...
- **Jazarpen-jokabidearen ustezko erantzuleak:** oharrak, banakako tutoretzak, elkarrizketak erreferentziazko pertsonarekin, Pikas metodoan oinarritutako elkarrizketak...
- **Familiak** (ustezko biktimarenak eta jazarpen-jokabidearen ustezko erantzuleenak): elkarrizketak, bilerak...
- **Irakasleak eta irakasle ez diren langileak:** triangulazio-bilerak

.....

.....

.....

2. Informazioaren azterketa

Ondorio garrantzitsuak, aurreko atalean jasotako ebidentzietatik abiatuta.

.....

.....

.....

3. Jazarpenik dagoen ala ez balioestea, jasotako ebidentzietan oinarrituta

Erantzun bakoitzaren argudiaketa arrazoitua.

• **Ba al dago botere-desorekarik / babesgabetasunik?**

Kontuan hartuta jazarpen-jokabidea duten pertsonen kopurua, beldurrarazte-maila...

.....

.....

.....

• **Ba al dago mina eragiteko intentziorik?**

Umiliatzeko asmoa kontuan hartuta (erasoak jendaurrean gertatzen diren...)

.....

.....

.....

• **Ba al dago pertsonalizaziorik?**

Erasoak edozein ikasleri bereizketarik gabe eta intentsitate berarekin gertatzen EZ direnean...

.....

.....

.....

• **Ba al dago errepikapenik?**

Erasoa edo haren ondorioak denboran mantentzen direnean, errepikapena dagoela ondorioztatzen da (adibidez: ziberjazarpena).

.....

.....

• **Horregatik guztiagatik, jazarpena dagoela ondorioztatzen da?**

Badago jazarpena	X batekin adierazi
BAI	
EZ	

Uste izanez gero JAZARPEN kasua dela, haren ezaugarriak adierazi beharko dira. Adierazi beheko taulan kasuaren berezitasunak.

Adibidea: Kasu batean gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa (1), hitzezko eraso (2) eta ziberjazarpena (7) badago, taulan 1, 2 eta 7 apartatuak markatuko dira

	Ez	Bai	Puntuala	Errepikatua
1. Gizarte-bazterkeria eta -marjinazioa - Norbait aintzat ez hartzea (pasiboa). - Ez uztea parte hartzen (aktiboa).				
2. Hitzeko eraso - Norbait iraintzea (zuzena). - Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa) - Goitzenak jartzea (mistoa).				
3. Zeharkako eraso fisikoak - Norbaiti gauzak ezkutatzea - Norbaiti gauzak puskatzea - Norbaiti gauzak lapurtzea				
4. Eraso fisiko zuzenak - Norbait jotzea.				
5. Larderia/xantaia/mehatxua - Norbait mehatxatzea beldurrarazteko - Gauzak egitera behartzea - Armekin mehatxatzea				
6. Sexu-jazarpena edo -abusua eta/edo jazarpen sexista - Sexualki jazartzea edo beldurtzea - Sexu-abusua gauzatzea - Inor modu sexistan beldurtzea, beheratzea, umiliatzea, mintzea edo zirikatzea.				
7. Ziberjazarpena - Mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, whatsappen eta abarren bidez mezuak bidaltzea norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko. - Grabazioak egitea mugikorrarekin egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing), eta lagunen artean edo Interneten zabaltzea.				
8. LGTBIQ+fobiako ekintzak - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea LGTBI pertsona izateagatik. - Hitzeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxuak LGTB pertsona izateagatik				
9. Hezkuntza-laguntzako behar espezifikoak dituzten ikasleen aurkako erasoak, dituzten ezaugarriak direla-eta - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea - Hitzeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxua				
10. Eraso arrazistak - Gizarte-bazterkeria/marjinazioa: aintzat ez hartzea, parte hartzen ez uztea, diskriminatzea - Hitzeko erasoak: irainak, txisteak, isekak, deskalifikazioak edota komentario errespetugabeak. - Eraso fisiko zuzenak/zeharkakoak - Larderia/xantaia/mehatxua				

4. Jazarpenik ez dagoenerako hezkuntzako jarduketa-plana

Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den.

Honako hauek kontuan hartuta zehaztuko da:

1. Jarduketa-ildo espezifikoak
2. Arduradunak
3. Tenporalizazioa
4. Jarraipena eta ebaluazioa
5. Familiekin komunikatzeko prozedura

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Jazarpenik BAdago: Kasua amaitu ondoren, hasierako fasean aurreikusitakoez gain, beste neurri batzuk ere zehaztu ahal izango dira biktimaren babesa bermatzeko. Inplikaturako gainerako ikasleekin hartutako neurriak ere deskribatuko dira. Adierazi 201/2008 Dekretua aplikatu den.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

5. Familiekiko komunikazioa

Datak, prozedurak, edukia, akordioak, etab.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....(e)n, 20.....(e)ko(a)ren (e)(a)n.

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:

B TXOSTENA: HEZKUNTZAKO JARDUKETA-PLANA

1. Ikastetxearen identifikazio-datuak

Ikastetxea	
Ikastetxearen kodea	
Herria	
Ustezko biktimaren izen-abizenen inizialak	

2. “A TXOSTENA” hezkuntzako ikuskaritzara igorri ondoren eskuratu den informazio osagarria eta datu esanguratsuak

Bileretatik, elkarrizketetatik, gelan ohartemandakotik, beste toki batzuetatik edota beste iturri batzuetatik bildutako informazio berriaren deskripzioa.

.....

.....

.....

.....

.....

3. Jarduketa-plana

Kasuaren jarraipenaz arduratuko den taldea.

.....

.....

.....

.....

.....

Hezkuntza-jarduketak.

- **Biktimarekin**

.....

.....

.....

.....

.....

- **Jokabide jazarlea duten ikasleekin**

.....

.....

.....

.....

.....

- **Ikasle ikusleekin edo, hala badagokio, ikasgelako taldearekin**

.....

.....

.....

.....

.....

Beste jarduketa batzuk.

- **Familiekin**

.....

.....

.....

.....

.....

• Irakasleekin

Ziberjazarpen kasuetarako jarduketa espezifikoak.

4. Bilerak familiekin edo legezko tutoreekin

Datak, bertaratuak, bileraren helburuak eta ondorioak eta bileretan hartutako erabakiak.

5. Jazarpen egoeraren jarraipena eta ebaluazioa

Jarduketa-planaren jarraipena: prozedura, jarraipen-datak eta arduradunak.

.....

.....

.....

.....

Jarduketa-planaren eta egindako esku-hartzeen ebaluazioa.

.....

.....

.....

.....

.....

Hezkuntzako Ikuskaritzari kasuaren jarraipenari buruzko informazioa emateko prozedura eta maiztasuna.

.....

.....

.....

.....

.....

En, a de de 20

Zuzendaria

BAT taldeko kideak

Sin.:

Sin.:

4. ERANSKINA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTAREN MOTAK¹²

- **Indarkeria fisikoa.** Emakumearen biziaren edo osotasun fisikoaren aurka egiten den indarkeria da, edo xede hori duena. Min fisikoa eragiten duen edo eragin dezakeen ekintza ez akzidentala da. Adibidez, bultzakadak eta kolpeak ematea, gauzak jaurtitzea eta antzekoak, baldin eta emakume bati heriotza, lesio larriak, tratamendu medikoa edo kirurgikoa behar duten lesioak edo ospitaleraterik gabeko lesioak eragiteko modukoak baldin badira. Erasoen ondoriozko gaixotasunak eta lesioak zaintzeko laguntzarik ez ematea ere tratu txartzat hartzen da.
- **Indarkeria psikologikoa.** Min edo sufrimendu psikologikoa edo emozionala sortzen edo sorrarazi nahi duen indarkeria da, bai eta emakumearen duintasuna ukatzea, hari segurtasun eza eragitea, emakumeak bere buruari errespetua ez izatea, mendekotasun emozionala sortzea, autoestimua galaraztea, gizartetik bakartzea eta askatasunaz gabetzeko bestelako moduak baliatzea ere, mehatxuak, laidoak eta umiliatze-saioak eginez, baldintzarik gabeko mendekotasuna edo etengabeko zaintza ezarraraziz. Hitzeko jokabide hertsagarriak dira (esaterako, irainak) edo hitzik gabeko jokabide hertsagarriak, bikotekidea ukitzera iristen ez badira ere (esaterako, atek kolpatzea edo objektuak suntsitzea). Tratu txar psikologikoak nahitako jokabideak dira, min psikologikoa, norbere buruarenganako konfiantzaren galera edo sufrimendua ekartzen dutenak: irainak, laidoak, oihuak, isiluneak, mehatxuak, salaketak, bestearen ideien kritikak... Jokabide horiek jendearen aurrean nahiz eremu pribatuan egin daitezke, eta oso zaila da horiek hautematea baldin eta erasotzaileak portaera hori arlo pribatuan baino ez badu.
- **Sexu-indarkeria.** Emakumeen gorputza beren borondatearen aurka erabiltzea dakarren indarkeria da Eraso fisikoa eta laido psikologikoa ere bada, pertsonaren sexu-askatasunaren aurkakoa. Sexu-indarkeriazko jokabideak dira sexu-erasoak, sexu-abusuak, sexu-jazarpenak, exhibizionismoa, sexu-probokazioa, adingabeak galbideratzea eta adingabeen pornografia. Sexu-indarkeriazko jokabidetzat hartzen dira, baita ere, behartutako prostituzioa, pertsonak sexu-xedeetarako salerostea, genitalen mutilazioa, eta birjintasuna, haurdun ez izatea eta/edo fideltasuna 'egiaztatze' egiten diren azterketa behartuak. Sarritan, indarkeria mota hori ez da indarkeria moduan ikusten bikotekideen artean, emakume askok ez baitu uste sexualitate behartua bortxaketa denik. Horregatik, nahiz eta indarkeria mota hori emakumeen aurka munduan gehien erabiltzen denetarikoa izan, gutxien salatzen denetarikoa da. Gizonezkoek eragindako sexu-indarkeria patriarkatuak emandako abantaila-baldintzetan bermatzen da, eta, emakumeen gorputza erabiliz, emakumeak mendean hartzea du helburu. Sexu-indarkeria horren barruan honako mota hauek daude:
 - **Sexu-erasoa.** Onespenik gabeko sexu-harremana da, indarkeria erabiliz edo emakumea beldurraraziz egiten dena. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak. Emakumeak bortxatzen direnean, biktimizazio bikoitza gertatzen da askotan, emakumea jasandako erasoaren erantzule egiten baitute.
 - **Sexu-abusua.** Sexu-izaerako jokabideak egitean datza, baina indarkeria erabili gabe edo emakumea beldurrarazi gabe. Zigor-kodeak bereizi egiten ditu onespenik gabeko abusuak eta engainuz edo nagusitasun-egoera bat baliatuz egindako abusuak.
 - **Sexu-jazarpena.** Lan-harremaneko, irakaskuntza-harremaneko edo zerbitzuak emateko esparru batean, norberarentzat edo beste batentzat usu eta modu jarraitu batean sexu-mesedeak eskatzea da; horren ondorioz, biktima larderia larriko egoera iraingarri edo umiliagarrian aurkitzen da. Horren eraginez, aldatu egin daiteke biktimak lan-esparruan duen jokabidea: jazarlearekin bakarrik ez geratzeko ahaleginak egin ditzake, janzkera jakin bat eramanez, etab. Horrez gain, lan-esparruan gerta daiteke biktima lanetik kaleratzea, mailaz ez igotzea edo mehatxatua izatea ekintza horien bidez.

¹² Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuak. EAE, 2019. Emakunde.

- **Ekonomikoa.** Emakume baten eta, halakorik bada, emakumearen seme-alaben edo ekonomikoki bere mende daudenen ongizate fisikoa edo psikologikoa borondatez eta arrazoirik gabe urratzeko ekintzek osatzen dute indarkeria ekonomikoa. Horren barnean sartzen da, halaber, norberaren baliabide ekonomikoak, familiakoak edo bikotekideenak edukitzeko aukerak mugatzea. Tratu txar ekonomikoak lotura handiagoa du baliabide ekonomikoak erabiltzeko lehentasunekin, baliabiderik ez izatearekin baino. Lan ordaindua duten emakumeei zein lan ordaindurik gabeko emakumeei ezartzen zaie kontrol hori.
- **Indarkeria soziala.** Emakumea bakartzea eragiten du indarkeria sozialak; hau da, bere senideengandik eta lagunengandik urrunarazten du emakumea, jendaurrean mespretxatzen edo baztertzen du eta abar .Jokabide horiek guztiek min psikologikoa eragiten dute.
- **Indarkeria sinbolikoa.** Indarkeria sinbolikoa edo zeharkakoa gertatzen da sinesmen eta rol sozial jakin batzuk barneratzen direnean: gizonezkoen gailentasuna erreproduzitzen duten edo aurreko atalean azaldu diren indarkeria motak justifikatzen edo hutsaltzen dituzten sinesmen eta rolak izaten dira, biktimak berak ere barnera ditzakeenak. Mezuak, balioak, irudiak eta zeinuak dira, pertsonen arteko harreman sozialetan mendekotasuna, desoreka eta diskriminazioa erreproduzitzen eta transmititzen dutenak eta emakumeek gizartean duten mendetasun-egoera naturalizatzen dutenak.
- **Ziberindarkeria.** Teknologiez baliatuta egiten den emakumeenganako delituzko ekintza oro. Zentzu horretan, halako delituek egoera ugari hartzen dituzte barnean, eta horien artean nabarmentzekoak dira irudiak edo bideoak argitaratzea edota hedatzea, ondokoen bitartez: sexting-a, sextortsioa, grooming-a, zibererasoa, haur-pornografia, onlineko sexu-esplotazioa, eta emakumeak sexu-salerosketarako sareen menpe jartzea. Hona hemen horietako batzuk:
 - **Sexting-a.** Eduki sexualak argazki- edo bideo-formatuan bidaltzen dira, orokorrean bidaltzaileak berak ekoiztuta, eta telefono mugikorren bitartez bidaltzen zaizkie pertsona bati edo gehiagori. Ekintza horiek harreman afektibo edo sexualen bat duten edo izan duten pertsonen artean gertatu ohi dira, lagunartearekin zuzenean edo zeharka lotutako arrazoiengatik. Sexting bidez bidalitako eduki horiek baimenik gabe argitaratu edota hedatzea delitu bat da, Kode Penal berriaren 197. artikuluan jasotakoa, zehazki izen horrekin ez bada ere.
 - **Sextortsioa.** Xantaia bidez egiten den sexu-esplotazio modu bat da. Norbaitek sexting bidez edo web-kamera bidez lortutako eduki sexualak erabiltzen ditu biktimarengandik zerbait lortzeko (orokorrean sexualitatearekin zerikusia duena), eduki hori argitaratzearekin mehatxu eginez.
 - **Porno-mehatxua edo revenge porn.** Interneten eduki sexuala argitaratzea biktimaren (gehienetan emakumeak) informazio pertsonalarekin batera. Bikote baten harremana hautsi ondoren gertatu ohi da, mehatxu gisa, eta gehienetan gizonaren aldetik, emakumeak berarekin jarraitzen ez duelako. Hala ere, pertsona ezezagun baten aldetik ere gerta daiteke, zeinari ilegalki iritsi zaion eduki sexuala.
 - **Grooming-a o child-grooming-a.** Heldu batek (gehienetan gizonak) nahita gauzatutako ekintza bat da, Internet bidez adingabeekin adiskidetasun-loturak ezarri nahian. Limurtzeko estrategia bat da harreman horien bila dabilenaren identitatea ezkutatu nahian, eta horretarako gazte bat edo neska bat balitz bezala jokatzeko du. Haren xedea da sexu-gogobetetasuna lortzea adingabeen irudi edo bideo erotikoen/pornografikoen bitartez, baita sexu-topaketa baten aurretiazko prestaketa gisa ere.

5. ERANSKINA. IKASTETXEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK. INDARKERIA MATXISTAREN EMAKUMEZKO BIKTIMA BATEN AURREAN JARDUTEKO GOMENDIOAK

Lehendabiziko kontaktua aukera bikaina da pertsonen arteko harreman bat ezartzeko. Izan ere, horrek esku-hartze osoa baldintzatuko du.

IKASTETXEA EGIN BEHAR DUENA:

- Susmo-zantzuei adi egotea.
- Lehendabiziko kontaktu horren xedea oso argi izatea: informazioa bildu eta transmititzea; lasaitasuna, laguntza, aholkua, orientazioa eta abar eskaintzea.
- Elkarrizketa egingo den lekua zaintzea: leku lasaia izatea, elkarrizketatua eroso senti dadin, beste pertsonen etenaldirik ez egotea eta pribatutasuna zaintzea.
- Aurretiaz gidoi malgu bat ezartzea, gutzia inprobisazioaren menpe ez uzteko. Baina ez dadila zurrunegia izan.
- Jarrera positiboa, enpatikoa, errespetutsua eta hurbila izatea, eta entzute aktiboa aplikatzea.
- Gure konfiantza eta babes adieraztea.
- Egoerarekiko interesa erakustea. Gure interesa adieraztea: Jakin dugu... Zer kontatu ahal diguzu horri buruz?
- Adieraztea laguntza eman diezaiokegula, baina itxaropen faltsurik eman gabe. Erabakiak adosteko, haren iritzia ezagutu behar da.
- Sentimenduei eta emozioei izena jartzeak emozio horiek kudeatzen laguntzen du.
- Baliozkotzea: une horretan sentitzen eta pentsatzen duena baliozkotzea. Sentimenduei eta emozioei izena jartzea Emozioak kudea daitezke.
- Bere erritmoa errespetatzea, eta denbora ematea kontakizuna osatzeko, arinegi joan gabe.
- Garrantzitsua da lehendabizi entzutea, eta kontakizuna amaitu duenean, beharrezko informazioa eman ahal izango zaio.
- Biktimaren azalpen espontaneoaren erregistratzea: hitzez hitz esan duena laburtzea eta kontakizunaren inguruabarrak zehaztea.
- Balio-iritzirik gabe, esanguratsutat jo daitezkeen datuak eta informazioak erregistratzea, kasuaren ezaugarriak ahalik eta modurik objektiboenean definitzeko.

IKASTETXEA EGIN BEHAR EZ DUENA:

- Ez da ez entzunarena egin edo balio-iritzirik eman behar.
- Ez zaio haur edo nerabeari zalantzarik planteatu behar kontatutako egintzen egiazkotasunari buruz edo horrelakorik gertatu izanaren susmoari buruz, biktimizaziorik ez erreproduzitzeko.
- Ez zaio garrantzirik kendu behar, ezta itxaropen faltsurik eman ere.
- Ikastetxeak ez du diagnostikorik egin edo baieztatuko; ikastetxeak susmoa jakinaraziko du.
- Ez da inola ere haurraren edo nerabearen gorputza arakatuko.

6. ERANSKINA. INFOGRAFIA

EMAKUMEEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA ERAGITEN DUEN AGENTEAREN ARABERA JARDUTEKO ETA DETEKTATZEKO JARRAIBIDEAK

A Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea EMAKUMEZKO IKASLE bat indarkeria matxistaren biktima dela, **IKASTETXE BEREKO GIZONEKO IKASLE** baten eskutik

Ikastetxeetan eskola-jazarpeneko egoeretan jarduteko protokoloa aplikatu

D Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea ikastetxe **EMAKUMEZKO LANGILE** bat edo ikastetxe **ikasle baten AMA ETXEKO** indarkeria matxistaren biktima dela

A.1 INFORMAZIOA JASOTzea

Ebidentziak badaude:

0 ERANSKINA (III. ERANSKINA) + Babesgabatasuneko egoereretarako protokoloa

Susmoak badaude:

0 ERANSKINA + Babesgabatasuneko egoereretarako protokoloa

A.2 KASUAREN AURREAZTERKETA ETA URGENTZIAZKO ESKU-HARTZEAK

- Ertzain-etxeke bideratzailearekin harremanetan jarri
- Erreferentziako pertsona heldu bat aukeratu
- Biktimarekin harreman zuzena duten profesionali egoeraren berri ematea
- Zaintza- eta aldentzeko neurriak hartu
- Informazio bilketa osatu

A.3 GURASO EDO LEGEZKO TUTOREEI LEHENEGO JAKINARAZPENA

(haiek ez badira izan egoeraren berri eman digutenak)

A.4 INFORMAZIOA OSATzea ETA AZTERTzea

IRAKASLE-TALDEAREN BILERAREN AKTA bete

Jazarpenik ez badago:

ESKU-HARTZEKO PLANA zehaztu (II. ERANSKINA)

Jazarpena egon daiteke, eta ez dagoela onduzotzatzen bada, hezkuntza-erantzuna zehaztu

Jazarpenik badago: **B ERANSKINA**

A.5 Hartutako neurrien JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

B Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea **EMAKUMEZKO IKASLE** bat indarkeria matxistaren biktima dela, ikastetxe **GIZONEKO LANGILE** baten eskutik

B.1 ZUZENDARITZA-TALDEARI GERTATUKOAREN BERRI EMATEA

Erreferentziako pertsona izendatu eta **ESKU-HARTZE PLANA** gauzatu:

II. ERANSKINA

Zuzendaritza-taldeak hezkuntza ikuskaritzari komunikatu:

I. ERANSKINA

B.2 ESKU-HARTzea

Ebidentziak badaude:

Ertzain etxeke hurbiltzailearekin harremanetan jarri eta babesgabatasunerako protokoloa

Susmoak badaude:

Babesgabatasunerako protokoloa

B.3 URGENTZIAZKO ESKU-HARTzea

Zaintza neurriak Babesa bermatuko duten antolaketa-neurriak

B.4 KOMUNIKAZIOA

Guraso edo legezko tutoreei jakinarazpena

B.5 PROZEDURA JUDIZIALAREN BALIZKO HASIERA

C Hezkuntza-komunitateko norbaitek jakitea edo susmoa izatea **EMAKUMEZKO IKASLE** bat indarkeria matxistaren biktima dela, familiako gizon baten edo ikastetxean lan egiten **EZ duen beste GIZON** baten eskutik

C.1 ZUZENDARITZA TALDEARI BERRI EMATEA

BAT TALDEA deitu eta **I. ERANSKINA**

C.2 ERREFERENTZIAZKO PERTSONA BAT IZENDATU

Ikasleari eta guraso edo legezko tutoreei eta **ESKU-HARTZE PLANA** egin

II. ERANSKINA

C.3 KOMUNIKAZIOA

Zuzendaritza taldeak ikuskaritzari:

I. ERANSKINA

Ebidentziak baldin badaude:

Zuzendaritza Ertzaintzaren komisariako bideratzailearekin Babesgabatasunerako protokoloa

Susmoak baldin badaude:

Babesgabatasunerako protokoloa

Amei, aitei eta legezko tutoreei:

> Aita bada → amari edo legezko tutoreei egindako jarduketan berri eman

> Aita ez den beste gizon bat bada (familia ingurukoak da) } guraso edo legezko tutoreei egindako jarduketan berri eman

> Ikaslearen ingurukoak ez bada

D.1 BIKTIMA IKASTETXEAN SEME-ALABAK DITUEN AMA BAT BADA

- Ikastetxe **zuzendaritza taldeari** jakinarazi
- Ikastetxeak babesa edo laguntza eskaini: udaterri edo eskualdeko baliabideen berri eman
- Arreta berezia ikastetxean dauden seme-alabei:
 - Tutoreari jakinarazi
 - Beharrezkoa bada, beste eragileekin harremanetan jarri

D.2 AMARI TRATU TXARRAK EMATEN DIZKIONA IKASTETXEKO IKASLEA BALDIN BADA

- Zuzendaritza taldeari jakinarazi
- Zuzendaritza taldeak ikuskaritzari jakinarazi

Ebidentziak badaude:

Ertzain-etxeke hurbiltzailearekin harremanetan

Susmoak baldin badaude:

- Babesgabatasunerako protokoloa
- Tutoreari jakinarazi
- Banakako Plana egin zuzendaritza eta tutorearen artean eta horren jarraipena
- Amari esku-hartzea azaldu

D.3 BIKTIMA IKASTETXEKO LANGILEA BADA (PROFESIONALEK BEREN EGINKIZUNAK GAUZATZEN)

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Saiburuaren 2011ko ekainaren 20ko Agindua bete. Laneko jazarpen moral eta/edo sexistaren kasuetarako prebentzio-neurriak eta jarduteko prozedura arautzen ditu (bitartekaritza salbu).

D.4 BIKTIMA IRAKASLEA EZ DEN IKASTETXEKO LANGILE PUBLIKOAK BADA

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko Saiburuaren 2021eko uztailaren 9ko Agindua, sexu-jazarpeneko eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuetan jarduteko prozedura arautzen duena. Sexu-jazarpenen edo sexuan oinarritutako jazarpen kasuak, Aholkularitza Konfidentzialari jakinarazi. Kontakua: prevención@euskadi.eus; Tlf. 945018538

